

## SECCION AMENA.

### ORENTZARO.<sup>1</sup>

(Argitaratubagea.—Inédita.)

Zay egoten naiz luzaro  
Eldu bediñ Orentzaro  
Zergatikan dan eguna  
Zeiebratzen deguna,  
Bazkariz eta afariz  
Eldutzen dan aiñ bat aldiz

Orentzaro izan ezkeru  
Gure echian urtero  
Nola oroitzen zaitan  
Egun artan bazkaitan  
Ez da ez izango falta  
Eltzian odolki galanta.

Afari oberik berdiñ  
Ez du beste iñork egiñ,  
Ez peseta frankore  
Kostatu bazayo ere  
Ostaturik onenian,  
Martin Ezcurra-renian.

Orduko nere gloriyan  
Dantzari asteko zoriyan  
Jartzen naiz geyenian  
Egiten dutenian  
Arduak botillan klun-klun-klun  
Gaztañak surtan pun-pun-pun.

(Vilinch.)

### Otso ta asto gaisotua.

#### IPUIA.

Jakiñik otsoak gaišo edo eririk zegoala astoa, joan zitzaion ekustera sendatzeko estalgarriaz. Ikutzen zion an ta emen, ta diotsa:

—¿Non dezu miñ? ¿Non dago zure gaitza?

Eranzun zion astoak bero mediku edo sendagille ederrari: zuk ikutzen didazun leku guzietan daukat miñik andiena. Orretan dago nere gaitza edo kaltea, ta eskerrak emango dizkitzut pakean bazaude. Zu bezelako sendagillak dira gaitza irasteko obeak.

Ipui onek dio, gizon gaitzoak saldu nai dutenean on egiña itz ederrakin, orduan ari dirala guzien gaitz egiten.

Bada,

*Ez sinistu gizon gaistoari,  
Gezurra dariolako alakoari.*

Vicenta Moguel eta Elguezabal.

*VJ<sup>garren</sup> itanasiaren askantza: — ALKATEAREN ZUMEA.*

*XV<sup>garren</sup> somaketaren askantza: — OSIÑA:*

XVI <sup>garren</sup> SOMAKETA EDO ASMAKETA.

*Batak Biya-rekin  
Egiten du bata,  
Nere dana, janzi  
Oi dan gauza bat da.*

*ASKANTZA urrengo lumero edo liburuchoan.*

(1) Vilinch-en paperea artean arkitua.